

FUNTSEZKO JARDUERA

Gure produktua aurrera eramateko ekintza orden bat jarraitu beharko dugu eta era berean proiektua betetzeko hainbat funtsezko betebeharrak ditugu. Honetan garrantzitsuena ekoizpena modu ordenatu batean antolatzea da. Gure makinaren ekoizpenean ingurumenarekiko errespetua sustatzen dituzten produktuak erabili beharko ditugu eta aldi berean, ingurunea zaintzea agintzen dituzten legeak errespetatu.

Hori guztia beteta, gure proiektua aurrera eramateko prozesuan gauzatzen diren arazoak konpontzeko gaitasuna edukitzea ezinbestekoa izango da. Lan hau egin aurretik, gerta daitezkeen arazo guztiak hartu beharko ditugu kontuan, eta konponbide bat planteatzen saiatu beharko dugu ahalik eta lasterren konpondu ahal izateko edo saihestu ahal izateko.

Bestalde, publizitate eta harreman arloak oso rol garrantzitsua jokatzen dute. Jendearen interesa piztea funtsezkoa da proiektu batek arrakasta izan dezan. Horregatik, internet eta sare sozialen kudeaketa bikain bat exijitzen gara. Informazioa partekatzeko eta marketing egiteko modu berritzaileak erabiltzea izango da gure helmuga.

Azkenik, gure produktuaren desplazamendua ondo aztertuta egin beharko dugu. Gure zakarrontzien kokapena ondo aukeratzeak garrantzi handia du honen erabilera areagotzeko. Herri guztietan gutxienez bat ipintzearekin hasiko gara, ondoren biztanle kopuruaren eta udaletxeen diru eskaintzen arabera zakarrontzi kantitate handiagoa edo txikiagoa ipiniko dugu.